




Buruntzaldeko udalak – Euskarako batzordeak

Andoain • Astigarraga • Hernani • Lasarte-Oria • Urnieta • Usurbil

Baietz gurean!

**BURUNTZALDEKO ENPRESETAN EUSKARAREN ERABILERA
SUSTATZEKO EGITASMOA**



Buruntzaldeko Udalek 2004tik elkarlanean garatzen dituzten egitasmoen artean lan munduan euskararen presentzia areagotzeko egitasmoa dago, eta horren barruan kokatzen da “Baietz gurean” laguntza-sistema.

HELBURUA: 2010etik aurrera, Buruntzaldeko udalen asmoa da ahalik eta enpresa gehien jartzea euskararen erabilera normalizatzeko bidean, eta horretarako, aholkularitza zein diru-laguntzak ematea.

Laguntza hauekin, gainera, Buruntzaldeko enpresek Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) ematen duen BIKAIN ziurtagiria lortzeko aukera eta erraztasuna izango dute.

NORI ZUZENDUA: Buruntzaldeko herrietako enpresei, beti ere, **10 langiletik gora dituztenei.**

PROZEDURA: Egitasmoan parte hartzea erabakitzen duten enpresetan hizkuntzaren inguruko diagnosi bat egingo dute udalek, enpresa zein hizkuntza egoeratik abiatzen den neurtzeko. Diagnosi hori egiteko, AHIZE enpresa aholkularia kontratatu dute Buruntzaldeko udalek.











Aipatutako diagnosa egiteko, HPSk LanHitz programaren barruan definituta duen Erreferentzia Marko Estandarra (EME aplikazio informatikoa) erabiliko du AHIZE enpresa aholkulariak, eta hurrengoak dira aztertuko diren ardatzak:

- Komunikazioa eta irudi korporatiboa
- Kanpoko harremanak
- Barneko harremanak
- Hizkuntza-kudeaketa

Diagnosa egin ondoren, enpresa aholkulariak neurketaren emaitza jasotzen duen txostena egingo du, eta bertan jasoko du, baita ere, enpresak euskararen normalizazioan aurrera egiteko zein urrats eman beharko lituzkeen. Txosten hori enpresari eta enpresa kokatua dagoeneko Udalari emango dizkio AHIZE enpresa aholkulariak.

Neurketaren emaitza ez da zenbaki zehatz bat izango, 100 puntuko tarte bat baizik (400 eta 500 puntu artekoa adibidez). Puntu tarte batetik besterako jauzia, hobekuntza alegia, diruz lagunduko da, eta diru-laguntza 700 / 500 / 300 € izan daiteke puntu tartearen eta hobekuntza mailaren arabera.

Arestian esan bezala, puntu-tartekako diru-laguntza sistema izango da, eta puntu-tarte batetik besterako jauzia izango da diruz lagunduko dena. Ikus ondoko eskema:

0-100	101-200	201-300	301-400	401-500	501-600	601-700	701-800	801-900	901-1000
700€	700€	700€	700€	500€	500€	500€	500€	300€	300€
									

HITZARMENA: Enpresak Baietz gurean! egitasmoan parte hartzea erabakitzen duenean, urte bateko iraupena izango duen elkarlanerako hitzarmena sinatuko du bere herriko Udalarekin, eta hitzarmen horretan jasoko da, udalak enpresari emango dion diru-laguntzaren kopurua zein elkarlana arautuko duten gainerako zehaztasunak.

DIRU-LAGUNTZA JASOTZEA: Enpresak diru-laguntzak jaso ahal izateko, bigarren neurketa egin nahi duela jakinarazi beharko dio Udalari, hitzarmenaren iraupena amaitu baino hilabete bat lehenago. Bigarren neurketa horretan, egindako aurrerapausoen bidez enpresak puntu tarte batetik besterako jauzia egin duela frogatzen bada, dagokion dirulaguntza emango dio enpresari.

JARRAIPENA NOLA: Lehendabiziko hitzarmen hori amaitu ondoren, enpresak Baietz gurean! egitasmoaren barruan aurrerapausoak egiten jarraitzea erabakitzen badu, hitzarmen berri bat sinatuko du udalarekin eta arestian aipaturiko prozedura bera errepikatuko da. Hitzarmen berri honen abiapuntutzat azken neurketak eman duen puntuazioa hartuko da.

Neurketa baten ondoren, enpresa batek urtebete baino gehiago ematen badu udalarekin hitzarmena berri gabe, neurketa berri bat egin beharko zaio hitzarmen berri bat sinatu ahal izateko.